ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2022ko martxoaren 2a, asteazkena • 26 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

2022an Donemiliagako udalerrian kontzejuek egiten dituzten jaiak eta gizarte eta kultura jarduerak antolatu eta egiteko gastuak finantzatzeko udal laguntzen deialdia jasotzen duen Donemiliagako Udalbatzaren 2022ko otsailaren 9ko erabakiaren laburpena

DDBN (Identif.): 611000

Bat etorriz Dirulaguntzei buruzko azaroaren 38/2003 Legeak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

(https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/611000).

Deialdiaren xedea

2022an Donemiliagako udalerriko herrietan egiten diren jaiak eta gizarte eta kultura jarduerak antolatu eta egiteak eragindako gastuak finantzatzea.

Honako hauek jaso dezakete dirulaguntza: Donemiliagako udalerriko herrietan jai egitarauaren barruan egiten diren jarduerek; izaera herrikoia duten eta, oro har, herritar guztientzako diren kultura, jolas, jai eta kirol ekitaldiek; garaikurren erosketek (txapelak, kopak, urdaiazpikoak, gaztak…) eta jaietako jardueren berri emateko egiten diren kartelek.

Jarduerak herrikoiak izan beharko dira. Herritar guztientzako izan beharko dira, oro har, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatu behar dute.

Diruz lagunduko dira, halaber, agertokiak alokatzeak eragindako gastuak, programatutako jarduerak egiteko halakoa beharrezkoa dela egiaztatzen duten herrietan eta herriok hala eskatu ondoren.

Salbuetsita geratzen dira otorduen, lunchen eta antzekoen gastuak, bai eta elikagaien gastuak ere, hala nola gozoki, edari eta bestelakoenak.

Ez dira diruz lagunduko sexua dela eta zuzenean zein zeharka inor diskriminatzen duen jarduerarik.

Onuradunak

Donemiliagako udalerriko kontzejuek edo batzorde antolatzaileek eskatu ahal izango dute dirulaguntza, baldin eta kideen onarpen prozesuan edo funtzionamenduan sexua dela eta bereizkeriarik egiten ez badute.

Kontzejuaren oniritzia izan beharko dute 2022an kultura ekintzak eta ospakizunak antolatzen dituzten batzorde antolatzaileek.

Oinarri arautzaileak

Donemiliagako Udalbatzak 2022ko otsailaren 9an egindako bilkuran onetsiak.

Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honen zuzkidura 22.500 euro da (334.434.000 eta 338.434.000 aplikazioak).

Kontzeju bakoitzak, gehienez ere, 1.300,00 euroko dirulaguntza jasoko du, eskatutako jarduera kopurua eta eskatzaile kopurua zein diren gorabehera, eta udalaren aurrekontu aplikazioaren muga (18.000 euro) kontuan hartuta. Onetsitako aurrekontu aplikazioa eskaera guztiei aurre egiteko nahikoa ez bada eta aurrekontua handitzerik ez badago, gehieneko dirulaguntza proportzionalki urrituko da.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Agertokiak alokatzeko, kontzeju guztien artean, gehienez 4.500,00 euro emango dira dirulaguntzetan. Kontzeju bakoitzari dagokion zenbatekoa aurkeztutako eta onartutako eskaeren araberakoa izango da.

Eskaerak ebatzi ondoren kreditu erabilgarririk badago, kontzejuei eman ahal izango zaie jaietako jardueretarako orkestrak kontratatzeko gastuak ordaintzeko, betiere kontratazioaren zenbatekoa 2.000,00 eurotik gorakoa bada. Gehieneko zenbatekoa, aurrekontu aplikazioan dagoen kreditu erabilgarria kontuan izanik, 1.250,00 euro izango da. Eta beraz, gehienez ere 1.300,00 euroko hasierako dirulaguntza ezin izango da 2.550,00 euro baino handiagoa izan.

Eskaerak aurkezteko epea

Herri guztiek eskaerak aurkezteko duten epea 2022ko abenduaren 13an bukatuko da.

Salbuespen gisa, 2022ko abenduaren 14tik 31ra bitartean gastuak egiten badira, egiaztagiriak aurkezteko epea 2023ko urtarrilaren 9ra arte luzatuko da. Halakoetan, 2022ko abenduaren 14a baino lehen, Donemiliagako Udalean aurkeztu beharko da kasuan kasuko eskaera, gastu xedapena ezagutze aldera.

Erdoña, 2022ko otsailaren 17a

La alcaldesa
ERIKA LETAMENDI HURTADO

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2022.03.02 06:58:26 Z